

Mariana Castillo Deball. Amaranthus



Para qué me diste las manos llenas de color / todo lo que toque se llenará de sol (zattia). Mariana Castillo Deball, 2018

A2 aretoan, 2021eko azaroaren 5etik 2022ko martxoaren 13ra

Komisariotza: Catalina Lozano

Argitalpena. Testuaren egilea: Catalina Lozano

Elkarrizketa Mariana Castillo Deballen eta Catalina Lozanoren artean: azaroaren 5ean, ostirala, 18:00etan

Bisita gisatuak azaroan: 7an, igandea, 12:30ean; 10ean, asteazkena, 18:00etan; 13an, larunbata, 17:30ean; 20an, larunbata, 12:30ean; 24an, asteazkena, 18:00etan

Museum für Gegenwartskunst Siegen (Alemania) y Museo Universitario de Arte Contemporáneo (México) museoekin elkarlanean

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK MARIANA CASTILLO DEBALL-EN *AMARANTUS* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Artium Museoak, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak *Mariana Castillo Deball*. *Amarantus* erakusketa aurkeztu du (A2 aretoan, 2022ko martxoaren 13ra arte). Erakusketak azken hamarkadan ekoiztako lan gehienak biltzen ditu. Lan horietan, ezagutza eta kultura produzitzeko, irudikatzeko eta zabaltzeko moduengatik Castillo Deballek duen interesa ikus daiteke, eta, zehazki, Mexikoko koloniaurreko historiaz jabetzeko eta hura birkodetzeko prozesuez. Erakusketa dela eta, Artium Museoak liburu bat argitaratu du Catalina Lozano komisarioaren testuarekin. *Amarantus* Museum für Gegenwartskunst Siegen (Alemania) eta Arte Garaikideko Unibertsitate Museoarekin (Mexiko) lankidetzan antolatu da.

Amarantus-ek Mariana Castillo Deball-en (Mexiko Hiria, 1975) lan sorta bat aurkezten du. Hasiera-hasieratik, ezagutza eta kultura sortzeko, irudikatzeko eta zabaltzeko moduak interesatu zaizkio artista honi eta ikusizko arteen, zientziaren eta fikzioaren artean zeharka lan eginez, Mexikoko historia aurrekoloniala une batzuetan eta besteetan nola ikertu, birkodetu eta erabili den aztertu du.

Horrez gainera, baita zoriak —igarotako denboraren, higaduraren, zatiketaren eta giza esku-hartzeen ondorioz, besteak beste— nola erabakitzen duen, neurri handi batean, mundua eta egiten ditugun kontakizunak deskribatzen ikasteko modua ere. Interes horrek tresna jakin batzuen historia —«objektu deserosoak» deitzen dituenak—, eta haien sorrera, erreproduzioak, jabetzeak eta desagertzeak ikertzera bultzatu du. Objektu horiek, beren egoera ezegonkorretatik, galderak botatzen dizkie kontakizun hegemonikoei, eta, horiei heltzeko, Castillo Deballek irudimen-ariketa bat jartzen du abian, modernitateak ezarritako subjektuen eta objektuen arteko harremana problematizatzea helburu duena, eta azken horiek bere inguruan gertatzen denaren kontalari bihurtzen ditu.

Bere estrategia formalak askotan arkeologoek beren aurkikuntzak «harrapatzeko» erabiltzen dituzten metodologiak antzekoak dira. Objektu horiek, edo irudi suzedaneak, antzinako *ixiptla* nahua noziora hurbiltzen dira kontzeptualki, 'irudikapen, irudi, ordezko' gisa interpreta daitekeena, baina baita 'azal' gisa ere. Kontzeptu hori ezinbestekoa da Castillo Deball-en azken hamarkadako proiektu asko ulertzeko.

Erakusketari izena ematen dion «amarantus» hitza, grezierazko *Αμάρανθος*-etik dator, eta inoiz hiltzen ez den lore bat izendatzen du —amarantoarenarekin gertatzen den bezala, adibidez, Mexikoko elikadura tradizionalan ezinbestekoa den landarea, inoiz zimeltzen ez dena—. Amarantoaren loreak «objektu deseroso» horien iraunkortasuna gogorarazten du, Castillo Deball liluratzen duten bilakaera historiko gorabeheratsuen aztarna materialak.

Amarantusek hogeitabi obra biltzen ditu, gehienak azken hamarkadakoak. Sarreran kokatua dago *Para qué me diste las manos llenas de color / todo lo que toque se llenará de sol* (2018), horma zilindriko baten gainean pigmentu naturalez egindako margolana. *Nuremberg Map of Tenochtitlan* (2013) instalazioa zurezko oholez estalitako eremu zabal bat da, non artistak duela 500 urte kolonizatzaile espainiarrek egindako hiriburu aztekaren lehen mapa eskala handian erreproduzitzen duen. Tamaina handiko beste obra bat *Pleasures of Association, and Poissons, such as Love* (2017) da, banbuz eraikitako kiribil itxurako instalazioa, ornodunek 200 milioi urtez izan duten bilakaera erakusten duena.

Mariana Castillo Deball

Mariana Castillo Deballek sariak jaso ditu bere ibilbideagatik. Ondokoak, esate baterako: 2013an Berlingo Galeria Nazionalean, 2012an Zurich Art Prize eta 2009an Ars Viva Award. 2017ko

Sharjahko Biurtekoan, 2014an Berlingo Biurtekoan, 2014an Kasselgo dOCUMENTA(n (13) eta 2011n Veneziako Biurtekoan parte hartu du. Duela gutxi bakarkako erakusketak aurkeztu ditu Modern Art Oxford-en (2020), Melbourneko Monash University Museum of Art-en (2019) eta New York Cityko New Museum-en (2019an ere). 2015. urteaz geroztik eskultura irakaslea da Münsterko (Alemania) Kunstakademie eskolan.

Artium Museoaren erakusketak

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian. Artium Museoa Bilduma

Mariana Castillo Deball. Amarantus. 2021eko azaroaren 5etik 2022ko martxoaren 13ra

Txaro Arrazola. Ustiaketa bikaina. 2022ko martxoaren 13ra arte

José Félix González Placer. Etxegarai'ko goti. 2022ko urtarrilaren 16ra arte

Rosalind Nashashibi. Z aretoa. 2021eko azaroaren 14ra arte

Lorea Alfaro. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. 2022ko urtarrilaren 16ra arte

Bigarren bidea (Zeru bat, hamaika bide). Artium Museoa Bilduma

Aurki

Eric Baudelaire. Z Aretoa. 2021eko azaroaren 25etik 2022ko urtarrilaren 23ra